

Aiurri

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Kantariak disko berriena aurkeztuko du Basteron, ostiral honetan

2017ko otsailaren 17a, 512 zenbakia XIII. urtea Andoainen eta Urnietan doan banatzen da

ANARI ETA TALDEA ZUZENEAN

“Bakerako bidean bizikidetzan sakondu nahi dugu”

Gipuzkoako Foru Aldundiaren “Bizikidetzan Lantzen” egitasmoa martxan da.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen zuzendaria da Maribel Vaquero urnietarra. Egitasmoari buruz elkarrizketa eskaini dio Aiurri astekariari: “Bakerako bidean bizikidetzan sakondu nahi dugu. Bizikidetzan hori, gainera, aniztasunean oinarritu behar dugu, diskriminazioa baztertuz. Eta hirugarrenik kultura demokratikoan sakontzea nahiko genuke”.

[URNIETA, 2-3. ORRIALDEAK]



Maribel Vaquero Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen zuzendaria da.

JARDUNALDIAK

Bizikidetzan sustatzeko jardunaldiak Urnietan:

■ Otsailak 23, osteguna
19:00 Lekaio

Hitzaldia:

Pako Etxeberriaren hitzaldia. 1960tik 2013ra bitartean Euskadin izandako torturaren inguruan egindako ikerketa.

■ Otsailak 25, larunbata
19:00 Sarobe

Antzerkia:

“La mirada del otro”. Gela bat kartzelan. Hiru lagun: bitartekaria, biktima eta kaltegilea.

Puska biltzea, kalderero gauaren aurretik



Joan zen larunbatean axerriak Leizotz aldean puska biltzen aritu eta gero, aste-buru honetan kaldereroen txanda izango da. Bata eta bestea inauterien atarikoak dira, otsailaren 23an Andoaingo gazteek Ostegun Gizona ospatuko baitute. Hitzorduak dagoeneko Agenda atalean ikusgai daude.

[ANDOAIN, 8. ORRIALDEA]

Nazioarteko garapena helburu

Andoaingo Udalak gobernu kanpoko hogeitak erakunderekin lankidetzan hitzarmenak sinatu ditu.

Nazioarteko hainbat egitasmo lagunduko ditu Udalak, bereziki emakumeenganako indarkeria egoerak gaitzera bideratutako egitasmoak. Ana Carrere alkateak erakundeetako ordezkariak mundu zabalean egiten duten lan itzelagatik eskerrak eman zizkien.

[ANDOAIN, 6-7. ORRIALDEAK]



Gobernu Kanpoko Erakundeekin lankidetzan hitzarmenak sinatu zituen Andoaingo Udalak, aurreko astean.

Hondakinen bilketa Andoain

Materia organikoa biltzeko edukiontzia martxan jarri eta lau hilabetera, Andoaingo zaborraren bereizte maila %29tik %43,5era igo da. Udal agintariak pozik agertu dira emaitzarekin, etorkizunean kopurua %60ra gerturatuko den helburuarekin.

[ANDOAIN, 9. ORRIALDEA]

URNIETA

BAKEA ETA BIZIKIDETZA ERAIKITZEN JARDUNALDIAK

Otsailak 23, osteguna
19:00 Lekaio kultur etxea

Pako Etxeberriaren hitzaldia:

Torturaren ikerketa Euskadin



Otsailak 25, larunbata
19:00 Sarobe

Antzerkia:

“La mirada del otro”: Biktima eta biktimarioaren arteko topaketari buruzko gogoeta bat



Informazio gehiago:
943 00 80 00
bakejardunaldiak@urnieta.eus



ELKARRIZKETA

“Bizikidetza eta bakea iraunkor bilakatu behar dira”

Maribel Vaquero eskarmentu handiko politikaria da. Urnietako udalgintzan garrantzia handiko eragilea izateaz gain, Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen zuzendaria da. Hilabete hauetan

“Bizikidetza lantzen” egitasmoa aurkezten ari da. Urte luzez landu ditu bizikidetza, bakea eta memoria. Aurreko agintaldian, esaterako, Eusko Legebiltzarrean bizikidetza batzordeko lehendakari izan zen.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen zuzendari zara, eta lehendik ere alor berean Eusko Legebiltzarrean bizikidetza batzordeko presidente izan zinen. Hain sentsiblea den alorrean erantzukizuna hartzea kostatzen al zitzaizun?

Maribel Vaquero. Euskal gizartearen azken urteotako erronkatarikoa horixe da, bizikidetzan sakontzea. Lehen ere Legebiltzarrean biktimak, presoak, bakegintza..., alor horien kudeaketan jardun nuen. Foru Aldundian, agintaldi honetan, giza eskubideak eta memoria historikoa alde bategatik eta migrazioak eta aniztasuna beste aldetik bateratu egin ditugu sail bakarrean. Ardatz nagusia giza eskubideak direlako.

Bakerako bidean bizikidetzan sakontu nahi dugu. Bizikidetza hori, gainera, aniztasunean oinarritu behar dugu, diskriminazioa baztertuz. Eta hirugarrenik kultura demokratikoan sakontzea nahiko genuke, zeren eta sinestuta gaude kultura politikoan sakontzen duen herri demokratiko batek indarkeria erabiltzeko aukera gutxiago dituela. Eta horrek gizarte bezala, indartsuago egiten gaitu.

Urtarrilaren amaieran bakegintza oinarritzat duen programa aurkeztu dugu, “Bizikidetza lantzen” izeneko, urte hauetan bizikidetza eta bakea iraunkor bilakatzeko behar-beharrezkoa delako.

Geroz eta udalerririk gehiago parte hartzen ari dira programa horretan. Udalerririk batek zer egin daiteke, bakegintzan noraino irits daitezke?

M.V. Herritarrengandik gertuen dagoen administrazio erakundea udalerririk da. Gatazka dagoenean errazagoa izan ohi da udalerririk abiatzea. Besteak beste, jendearen arnasa gertuago entzuten delako, eta mediatikoki askoz presio gutxiago dagoelako. Erakunde handiagoetan indarkeria politikoki erabili izan da, eta horrek askotan joko arauak baldintzatu ditu.

Guk garbi dugu azken urteetan eus-



Maribel Vaquero Urnietako San Juan plazan, joan zen asteazkenean egindako elkarrizketan.

kal gizartearen bizi izandako sufrimendua motibazio politikoa duela. ETak eragindakoa, eta bai GALEk eragindakoa ere. Udalerririk horri buruz hausnartzeko espazio aproposak dira. Abiapuntua gutxieneko adostasun politikoa edukitzea da. Ezinez bestekoa iruditzen zait hori. Ez dut esan nahi guztiok denean ados egon behar dugunik. Baina gutxienez adostasunak bilatu behar ditugu gatazkari buruzko elkarrizketa sortzeko. Izan ere, sufrimendua handia izan da, alde batean eta bestean.

Noraino irits litezke udalerririk?

M.V. Bizikidetza maila ezberdinetan landu daiteke. Une honetan 21 udalerririk daude “Bizikidetza lantzen” programan. Guztietan, formaltasun handiagoarekin

“Abiapuntua gutxieneko adostasun politikoa edukitzea da. Ez dut esan nahi guztiok denean ados egon behar dugunik. Baina gutxienez adostasunak bilatu behar ditugu gatazkari buruzko elkarrizketa sortzeko”

edo gutxiagorekin, alderdi politiko ezberdinen artean hitz egiteko batzordeak sortu dira. Formakuntza jasotzeko aukera badute. Horrez gain, hainbat udalerritan herritarren foroak martxan daude.

Euskal gatazkak biktima asko eragin ditu eta herrietan haiengana gerturatzea garrantzitsua da. Baina honaino iritsita borondatea izatea ez da nahikoa. Udale-

rietan prozesuak garatzeko lagungarri izango den eragilea edo elkarteak beharrezko ikusten dugu, egitasmoa giza eskubideen ikuspegitik gidatuko duena.

Alor askotara iristeko bokazioarekin jaio da egitasmoa. Ordezkaririk politikoen edota herritarren arteko solaskidetzaz gain, giza eskubideak hezkuntzan lantzeko aukera eskaintzen ari gara. Urnietan, adibidez, aurreko ikasturtean bizikidetza hezkuntza zentruetan landu zen.

Presoen gizarteratzea ere aztergaien artean dago. Gaur egun 380 inguru daude eta denak kondena altuekin. Eta, azkenik, memoria landu beharra dugu. Herri batek memoria landu behar du, modu kritikoa eta inklusiboan. Frantziako buruz bere garaian egin ez izanak badakigu zer ekarri digun. Ezin



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

ELKARRIZKETA

da gerorako utzi; motxila edo zama astun horiek askatu eta iraganari aurre egitea dagokigu.

Zer moduzkoa izaten ari da parte hartzea udalerrri ezberdinetan?

M.V. Orokorrean biktimak izan dira prozesu hauetan gehien busti direnak. Gehien sufritu dutenak dira eta euren ekarpena bizikidetzarako garrantzitsua dela deritzote. Biktimen joera hori ikusita, beste zenbait herritar mugitzen hasi dira. Nire ustean, herritarrok gure konfort eremutik atera behar dugu. Batzuetan pausoa ematea kostatzen da. Ezin negona sor diezakezu esperientziak, baina badago bustitzen ari den jendea eta guri tokatzen zaigu prozesuan parte hartzera.

Zure esperientziatik, zein ekimen eta leku-kotza iritsi zaizu barruraino?

M.V. Asko daude. Gogorak daude oso. Donostia 2016 egitarauan "Adiorik gabe" musika eta antzerki ikuskizuna antolatzen zuten, oso gogoko izan nuena. Tentu handiz, kulturaren bidez biktimei gerturatzeko ekitaldi sorta izan zen.

Eta testigantzei dagokionez, bat baino gehiago aipatuko nituzke. Josu Elesperena aipatu behar dut, gertutik ezagutzen dudana familia delako. Edota Andoitz Kortarena. Aita hil aurretik eta ondoren biktimekiko zuen jarrera ederto azaltzen du. Pili Zaballarena ere gogorra da eta Isaias Carrascoren alabaren lekukotza ere nabarmendu nahiko nuke. Hauek guztiak bizi izandako garapen pertsonala ezagutaraztea behar-beharrezkoa dela deritzot.

Pako Etxeberriak Urnietan hitzaldia eskainiko du, 1960 eta 2013 artean Euskadin izandako tortura kasuen ikerketa ematen ari dena azaltzeko. Tortura hizpide hartuta, horixe dugu Gurutze lantzi urnietarraren kasua. Inkomunikazio egoeran hil zen 1993an, tortura zantzuekin. Eusko Jaurlaritzarentzat, ordea, ez da eskubide osoko biktima "egiaztatze eta ikerketa lan handiagoa behar duen kasua" dela argudiatuz...

M.V. Eusko Jaurlaritzak lan hau egiteko enkargua egin zuen torturari buruzko datuak handiak direla jakin badakielako. Ezin ditugu begiak itxi. Ikerketa egiteko Europar Batasunak eskatzen duen Estokolomoko protokoloa aplikatu da eta dagoeneko ikusten ari gara datuak oso esanguratsuak direla.



Maribel Vaquero Bizikidetzaren eta Giza Eskubideetako foru zuzendaria, Elena Lete Bergarako alkatea, Markel Olano Ahalduen Nagusia, Zorione Etxezarraga Astigaragako alkatea eta Mikel Serrano Zumarragako alkatea "Bizikidetzaren Lantzen" egitasmoaren aurkezpenean.

"Nik uste Gurutze Iantziren familiak aitortza merezi duela, baita Urnietan ere. Aitortza hori ematen eta bere kasua ahalik eta gehien argitzen ahaleginduko gara"

Gurutze Iantziren kasuan, epaiketa itxi egin zuten. Familia aurka agertu zen eta Udalak ere abokatua jarri zuen. Jaurlaritzak, epaiketa eta kasua itxita dagoenez, Iantzi biktimek kontsideratzeko arazo legalak aurki ditzake. Garai hartako tesi ofizialarekin ez gaude ados. Nik uste Gurutze Iantziren familiak aitortza merezi duela, baita Urnietan ere. Aitortza hori ematen eta bere kasua ahalik eta gehien argitzen ahaleginduko gara.

Otsailaren 5ean COVITE biktimen elkarte-ko lehendakari Consuelo Ordoñez Andoainen izan zen eta, besteak beste, "Andoain vota a asesinos" adierazi zuen. Biktimekiko errespetua aldarrikatzen da, baina erakundeek horrelako gehiegikerien aurrean ezin dute ezer egin?

M.V.: Ez da lehenengo aldia eta pena ematen didate horrelako komentarioek. Biktimek badute beren mina, bere aitormen beharra eta egia, justizia eta errapaziorako eskubidea, baina jarri didazun adibidea uste dut gutxiengo batena dela. Gaur egun biktima asko daude elkarre-

tan ez daudenak eta errespetu osoa merezi dutenak.

Markel Olanok aurkezpenean adierazi zenez zauri asko daude sendatzeko, eta zubi asko berreraikitzeko. Noraino iritsi nahi da agintaldi honetan?

M.V.: Ahalik eta herrigune gehienetara iritsi nahi dugu. Ekintza planak garatzeko diru laguntzak eskainiko dizkiegu eta herri txikien kasuan edota orain arte abiatu ez diren kasuan Foru Aldundia ekintza puntualak antolatzeko prest gaude. Badakigu kasu batzuetan zaila dela, iraganaren kudeaketa egitea gehien kostatzen dena baita, baina alor honetan ez dugu bi abiadurako lurraldea izan nahi.

Berriki Elgoibarren Duintasunaren Kolonbarioa zabaldu dute. Zer nolako garrantzia du?

M.V. Handia, duintasunaren isla delako. Giza duintasuna Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren oinarrian dago. Urte hauetan topaturiko gorpuzkinek toki duina merezi zuten. Bilaka dadila erreferentziatzeko toki, kideren bat galdu duten senitartekoek dolua agertzeko lekua den aldetik.

Argentinako kereila helduleku bihurtu da frankismoan errepresioa jasan zutenentzat. Zer egin daiteke Aldunditik?

M.V.: Kereila horren harira, Buenos Aire-

"Bizikidetzaren Lantzen egitasmoarekin Gipuzkoako ahalik eta herrigune gehienetara iritsi nahi dugu, ekintza planak garatuz edota jarduerak puntualak antolatuz"

sen izan nintzen 2013an Legebiltzarreko ordezkari modura. Hango kausa daramaten abokatuekin eta Servini epailearekin izan ginen. Talde memorialistek Argentinako kereilarekin bat egitea eskatzen digute, besteak beste hemengo bake instrukzio epaitegietan kereila jarritz. Baina egia esatera, bide zaila da hori. Legearen ikuspegitik, kereilante izateko zuzeneko kaltetua izan behar zara. Gasteizko Udalarari eta Arabako Batzar Nagusiei bidetara nola moztu dieten ikustea besterik ez dago.

Zein arazo legal dauden ikusteko Foru Aldunditik Giza Eskubideen katedrako Jon Mirena Landari txostena egitea eskatu diogu. Laster jasoko dugu, eta horren arabera ikusi beharko da Aldundiak zer egin dezakeen.

Andoainen "Goiztirian" eskultura dagoen bezala, Urnietan posible izango al da?

M.V. Hori espero dut. Memoria guztiona da, eta inklusioa behar du izan. Ahalik eta akordioak handienarekin izatea nahi dugu, denon artean erabakitakoa.

**ALTZARIAREN
AZOKA URNIETAN.**

Deskontuak %80-a arte

**OTSAILAK
17-25**

Ordutegia:
LAN EGUNAK ETA LARUNBATA
18an: 09:30-13:00 / 14:00-19:30
IGANDEA 19n: 10:00-13:30
LARUNBATA 25ean: 09:30-13:00

IGARATEGI INDUSTRIALDEA 70
20130 URNIETA.

www.mueblesiturbe.com

Nei
Muebles Kit Altzariak

iturbe
SUKALDEA & ETXEA (1964az geroztik)

JARDUNALDIAK

Pako Etxeberria forentsearen hitzaldia Lekaion

Pako Etxeberria Gabilondo forentseak torturari buruzko hitzaldia eskainiko du Urnietan, Udalak antolatutako bizikidetza sustatzeko jardunaldien irekiera ekitaldian. Hizpide nagusia, 1960tik 2013ra bi-

tarte Euskadin izandako tortura kasuei buruz zuzendu duen ikerketa. Datorren otsailaren 23an izango da, ostegunarekin, Lekaio kultur etxean arratsaldeko 19:00etan hasita.


Eusko Jaurlaritzaren eskariz, Kriminologiaren Euskal Institutua torturari buruzko ikerketa burutzen ari da azken urteetan; ez da amaitu ikerketa, baina nahiko aurreratuta dauka, eta Urnietan Jonan Fernandez Bakegintza eta Bizikidetzako idazkari nagusiarekin batera 2016ko ekainean aurkeztu zituen lehen ondorioak azalduko ditu.

Ikerketak 4.009 pertsona identifikatu ditu oraingoz, 1960tik 2013rako epealdian Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabari dagokionez. Kasu hori guztietatik 2.000 sakonean aztertu dituzte eta horietako berrehuni Istanbulleko protokoloa aplikatu zaie, Nazio Batuen Erakundeak salaketan benetakotasuna ziurtatzeko erabiltzen duen mekanismoa alegia. Ikerketak Guardia Zibila, Polizia Nazionala eta Er-zaintza aipatzen ditu torturen eragile gisa.

Torturak 50 urte hauetan Euskadin izan duen benetako eraginaren berri ematea da ikerketaren helburua, eta aitormena, konponketa eta prebentzioari lotutako ondorioak zehaztea. Kasu horien egiaztapena burutu zuen bigarrenengo fasean, 2016an.

Hirugarren fasea ari dira lantzen, ondorioak eta gomendioak adierazteari dagokiona.

Etxeberria auzitegi-mendi-kuak zuzentzen duen lan-talde-



Pako Etxeberria kriminologoa aski ezaguna da euskal gizartean.

ak, besteak beste, Euskal Memoriaren fundazioak denbora luzez egindako txostena izan du esku artean. Fundazio horrek 1960-2014 epean 5.657 testigatza jaso eta dokumentatu izan ditu.

ERREALITATEA ARGITAN JARTZEA
Kostaldeko Hitza aldizkariari otsailaren 7an eginiko adierazpenetan, ikerketak agerian ja-

rritako 4.009 pertsonen errealitatea interpretatu zuen Etxeberriak: "Horrek balio du ozen eta beldurrik gabe esateko errealitatea dela, eta adierazten du lotsagarria dela nola kudeatu den borroka antiterrorista deitutakoa. Ezkutuan egon da ardurak dituzten batzuek esaten zutelako gezurra zela, baina beste batzuek bagenekien egia zela. Gure ingu-



2014an memoria historikoari buruzko hitzaldia eskaini zuen Saroben.

ruan gertutik ezagutu izan ditugu tortura kasuak. Kontuan hartzea falta zen, eta Eusko Jaurlaritzak ikertzea erabakitzea. Proiektua abian jartzean, zenbaitek esan zuen Jaurlaritzak ez zuela zilegitasunik kasu horiek ikertzeko, baina hori ez da horrela. Torturak ikertzea Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzako planaren 6. puntuan dago jasota. Eta torturatuak izan diren pertsonengana hurbildu gara galdetzeraz; hori aurrez ez zen inoiz egin ofizialki".

Justiziaren inguruan jardun zuen aipatu elkarrizketan: "Justizia ez da iritsi oraindik, bidegabekeria neurritz gaitzetsua da. Baina aurrerapausoak eman ahal izateko, lehenik, ofizialki onartu behar da gertatutakoa, eta, horretarako, in-

formazioa jarri behar da mahai gainean. 4.000 kasu agertu dira, eta 1.000 izan balira ere, eskandaluzkoa litzateke zifra".

Pako Etxeberria Gabilondo (Beasain, 1957) antropologo forentse ezaguna da. Besteak beste, Euskal Herriko Unibertsitateko Medikuntza arloko doktorea da, Kriminologiako Euskal Institutuko irakaslea eta Aranzadi Zientzia Elkarte-ko presidentea. Egun, torturari buruzko ikerketaz gain, burubelarri dabil 1936ko gerrako gorpuzkinak azaleratzen, Arantzadi elkarteko antropologia saileko buru izanik.

Sari ugari jaso ditu azken urteetan bere ibilbidea aitortuz; azkenekoa, Gipuzkoa Giza Eskubideak Saria izenekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiak emandakoa.

Txotx'17

R. ZABALA 943 690 774 Aduna
 LARRE-GAIN 943 555 846 Ereñozu-Hernani
 OIANUME 943 556 683 Urnieta
 GAZTAÑAGA 943 591 968 Andoain
 SARASOLA 943 690 283 Asteasu

2017ko egutegi gehiago nahi? deitu: 943 300 732

Poxta Zahar taldeak kartela eta informazioa zabaldu ditu

Ipuin giroko inauteriak

Inauteri eguneko bazkariaren eta bazkalostearen berri eman du Poxta Zahar taldeak. Aurtengo mozarroetarako gaia ipuinak izango da.

Bazkarirako menua oilasko jatea izango da. Menu beganoa ere eskainiko dute, 8 eurotan. Txartelak dagoeneko salgai daude Xauxarren.

OTSAILAK 25, LARUNBATA
12:00 Trikipoteoa Guriatik.
14:30 Bazkaria frontoian.
16:00 Bertsolariak.
17:00 Lear. Ondoren, sorpresa.

Otsailaren 17an, 20an eta 21ean argazkiak Lekaion ikusgai

Egape ikastolaren argazki erakusketa

Ikasturtean zehar Egape ikastolaren 50. urteurrena ospatzen ari dira. Udazkenean Aitziber Salinas Urnietako kazetariak landutako aldizkaria argitaratu zuten eta ostegun honetan, arratsaldeko 18:00etan hasita, Lekaion aurkezpena egingo dute. Aurkezpena egitearekin batera datozen egunetan ikastetxearen ibilbidea laburbiltzen duten argazkiak ikusgai jarriko dituzte, Lekaion bertan.



Egape ikastolako historia irudi bidez gogoan hartzeko aukera izango da.

“Amasahara” erakusketa



Amasan aurkeztu zuten ekimena, iazko abenduan.

Saharako kanpamenduetako argazkiez eta margolanek osaturiko erakusketa ikusgai dago egun hauetan Lekaio eskaileratan, Bertanen, Saroben eta Gizartekintzako eraikinean. Argazkiak Nora Urbizurenak dira, eta artelanak Ander Ortiz de Murua-renak. Horri loturik koadernoak, argazkiak, posta txartelak eta zenbait produktu erosteko aukera luzatu da.

Lorturiko dirua Amasako aterpetxera bideratuko da, bertan uda igaroko baitute harrera familiarik topatzen ez duten Saharako 13-14 haurrek.

Urnietako Udalak jakinarazi duenez, udan Saharako haur bat hartzeko interesa duen familia orok informazioa eska dezake Bertan bulegoan edo Gizartekintzako eraikinean.

Lan eskaintza

Arraindegirako dendaria behar da. Ezinbestekoa dira euskaraz jakitea eta espe-

rientzia izatea. Interesatuak telefonoz dei dezakete 628 063 871 telefono zenbakira.

Gipuzkoa 4.0 Fabrikazio Aurreratuko Sarea

Lurralde batek industria bultzatzea aberastasuna eta enplegua sortzeko.

Hori ekonomia da.

ORAININDUSTRIA4.0
Lagarren industria-iraultzarako prest

ORAIN EKONOMIA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



GIZARTEA

El Salvadorreko errealitatea Nerea Izagirreren eskutik

Hamabi urteko gerra zibilaren osteko bake akordioaren 25. urterena ospatu berri dute urtarrilean El Salvador herrialdean. Adierazpen ofizial bikainak entzun dira, baina bestelako errealitatea

deskribatzen digu Nerea Izagirre andoaindarrak. Bost urte darama bizitzen bertan familiarekin, eta El Salvador "itxaropen murrizteko" gizartea dela dio.

Hamabi urteko gerra latzaren ostean, gerri-llak (FMLN) eta Arena alderdi ultrasokindarrak akordioak sinatu zituzten...

Nerea Izagirre. Milaka hildako eragin zituena, erbesteratuak ere milaka eta milaka izan ziren. Akordioekin jendea nolabait iraunbizitzeko zakua eman zitzaion: lur zatitxoak eta ezer gutxi gehiago. Horretarakin egin behar izan zioten aurre bizimodu berriari. Egia da nazioarteko kooperazioa bideratu zela hona, baina sektorerik txiroenak eta batez ere emakumeak baztertua geratu ziren prozesu horretan, beste behin ere. Zauri ugari geratu ziren sendatu gabe, injustizia sozialei ez zitzaion behar bezala heldu, eta hori diraute egiturazko diren makina bat arazok: txirotasuna, kaleko biolentzia, segurtasun falta, matxismoa, emigrazioaren fenomenoak...

Urte hauetan gizonezko eta emakumezko askoren erresilientzia maila jarri izan da frogan, bizipen tragikoa gainditzeko pertsonak daukan gaitasuna alegia. Eta gizonezko ugari alkoholean ito den bezala, emakume gehienak bizimodu umil batera itzuli dira, bost edo zazpi seme-alabako familia aurrera eramateko ardura beren bizkar hartuta.

Gerraz geroztik ez zaigu iristen berri askorik handik...

U.I. Bai, baina egun biolentzia egunerokotasunean sartuta dago El Salvadorren. Azken aldi bizi izan ditugun zenbait uherre gerra garaiko unerik kritikoenekin konparatzen dituzte. Batez ere, Mara izeneko taldeak poliziaz eta militarrek akabatzen hasi zirenean; susmoa zen estatua desegonkortsu nahi zutela eta Arena alderdiaren mertzenarioak zirela.

Zer dira Marak?

N.I. Antolatutako gazteen koadrilak dira. Oso modu territorialean mugitzen dira. Beren biolentziak egunerokotasunean eragiten du El Salvadorren. Emakumeak objektu sexual bezala erabiltzen dituzte, eta nahiko normalak dira horientzat tratatu txarrak, bortxaketak, erailketak... "Zerga" jartzen diete negozio txiki bati ireki dutenei, eta irabazitako bost dolarretatik hiru kentzen diete. Jende askori mugitze-ko oinarritzko eskubidea ere ukatzen die. Gure auzoan badira gazte asko beste auzo batzuetara joan ezin dutenak, mara horien beldur.

Mara horien aurkako borrokaren aitza-kiapean, poliziaz ere giza eskubideen



Nerea Izagirre andoaindarrak egonaldia egin du sorterrian, eta dagoeneko El Salvadorren dago.

urraketa galantak egin ohi ditu, erailketak, desagertaketak..., eta dena inpunitate osoarekin; nahikoa dute edonori "susmagarria" edo "susmagarrien inguruko" dela leporatzea.

Abortuaren gaia pil-pilean dabil El Salvadorren azken aldian...

N.I. Onera aldatzen ari da gaia, mahai gainean jarri denez geroztik. Fundamentalismoa eta matxismoa erraietaraino dago sartuta estatu egituratan eta ezkerreko zein eskuineko jendearengan, eta azpimarratzeko da erlijio ezberdinen eta horietako artzain ebanjelisten papera kultura matxista hori zabaltzeko garaian. Abortua kriminalizatuta egotea ideologia horren adierazleetakoa bat besterik ez da. 40 eta 50 urteko kartzela zigorrak ezarri izan zaizkie emakumei abortatzeagatik, orain gutxi arte. Ezkutuan zegoen emakume presoen egoera, eta BBCK erreportaje bat egin zuenean azaleratu egin zen. Harrezkero, emakume kontzientziatuak biltzen dituen Colectiva Feminista izeneko plataforma euren alde lan handia egiten ari da. Babeserako sare bat antolatuta dago, emakumeak erregistratzeko, laguntza juridikoa eskaintzeko... Gaia politikoen agendan sartzea lortu dute.

Zuk Mugen Gaietik GKEekin lan egiten duzu. Zein da zure eginkizuna?

N.I. Nekazaritza bizi den Suchitoto ko-

munitatean bizi naiz azken bost urteetan, eta beti kolaboratu izan dut GKE horrekin. Bertako "Tokiko Garapenerako Colectiva Feminista" izeneko elkartearekin elkarlanean jarduten du Mugen Gaietik, eta niri batik bat bulegoko lana egokitzeko zait, proiektuak eta txostenak idaztea. Nolanahi ere, Colectiva Feministak fronte ugari irekita dauzka eta horietan parte hartzen dut El Salvadorreko herritarra naizen aldetik.

Zeintzuk dira lan ildo horiek?

N.I. Instituzioekin eta emakumeekin egiten da lan batik bat. Politika publikoan, esate baterako, gobernuari eskatzen zaio irakaskuntzan ezar dezala aspaldian diseinatu daukan hezkuntza sexuala eta integrala, indarrean jar ditzala emakumeen eskubide sexualen aldeko legeak, har ditzala indarkeria matxistaren aurkako benetako neurriak.

Emakumei begira, ahalduzko eskolak sortu dira azken urteetan. Beraien helburua emakumei formakuntza eskaintzea da, dagozkien eskubideen gainean sensibilizatu eta kontzientzia hartzeko.

Nahiko beltz marraztu duzu gazteen etorkizuna...

N.I. Egoera ekonomikoarekin eta bizi den biolentziarekin estuki lotuta dagoen emigrazioaren aukerari heltzen diote gazte askok. "Amets amerikarra"ren ideia nahi-

ko errotuta dago El Salvadorren. AEBetik bidaltzen duten diruari esker bizi dira familia asko. Herrialdearen Barne Produktu Gordinaren zati handi bat suposatzen dute erremesa edota diru partida horiek.

Iheslariek Guatemala eta Mexiko gainditu behar dituzte AEBetara iristeko. Bidean, *Koyoteen* esku geratzen dira; horiei hamabi mila dolar ordaindu behar dizkiete, eta hilabeteak pasa ditzakete desertuan, muga gainditzeko aukera horri heldu bitartean. Zorionekoak izaten dira bidean ez badituzte atxilotzen. Lagun bati orain gutxi gertatu zaio AEBetan atxilotu eta beste hamabi mila dolarretako fidantzari aurre egin behar izan diola. Kartzelatik atera ahal izan zen, baina ordainean bere familia zorretan geratu da.

Donald Trumpekin ez du ematen egoera hobetzerako doanik....

N.I. Ez dugu ahaztu behar Obamaren garaian milaka eta milaka salvadortar deportatu zirela. Nolanahi ere, Trump gizon megalomanoa da, munduaren jabea balitz bezala ari da jokatzeko, eta bere hitza betetzen hasten bada, argi dago migrazioaren errealitateak okerrera egingo duela.

El Salvador esperantza gutxiko herrialdea dela adierazi izan duzu. Oraingo honetan ere, zabaldu diguzun mezua ez da oso baikorra.

N.I. Bi haur eta mutil lagunarekin bizi naiz Sutxitotoko komunitatean, eta ezin nuke han bizi ez banu sinetsiko egiazko aldaketan. Gainera, iruditzen zait neuk ere parte hartu behar dudala aldaketa prozesu horretan. Onar dezaket utopia batean bizi garela, baina egunez egun ematen ari dira pauso txikiak zuzeneko norabidean, eta horri eusten diot.

Adibidetzat jar dezaket nire bikotearen kasua: nekazal familia txiro bateko kidea da. Bere garaian, formakuntza jaso zuen bera bezalako gazte askorekin batera. Ondoren, antzerki taldea osatu zuten eta orain egundoko lana egiten ari dira gazte-riarekin, "gizarte eraldaketaren" lemapean. Gazte askoren bizimodua eta etorkizuna aldatzeko ahalmena eduki dute.

Zaila da eraldaketa orokor bat lortzea patriarkatua, kapitalismoa, ustelkeria, klima aldaketa eta beste hainbat faktore eraldatzeko. Baina gazteen eta emakumeen arloa jorratuz emaitza txikiak ikusten dira, pixkanaka.

[Elkarrizketa osoa: www.aiurri.eus]

GIZARTEA

Udal hitzarmena Gobernuz Kanpoko Erakundeekin

Gobernuz kanpoko hogeit hamar erakunde diruz lagunduko ditu Andoaingo Udalak, aurtengoan. Udal agintariek eta GKEen ordezkariak lan-kidetza hitzarmenak sinatu zituzten, udaletxean joan zen ostegune-

an egin zuten ekitaldian. Nazioarteko hainbat egitasmo lagunduko dituzte, bereziki emakumeenganako indarkeria egoerak gainditzera doazen egitasmoak.

Ana Carrere alkatea, **Marijose Izagirre** EAJko eta **Maidier Lainez** PSE-EEko bozeramamaileak eta GKEetako ordezkariak bildu ziren hitzarmenaren sinadura ekitaldira. Ana Carrerek GKEetako ordezkariari berdintasunari begira mundu zabalean egiten duten lan itzelagatik eskerrak eman zizkien. Alkatearen adierazpenetan ikusi zenez, Udalak munduko hainbat lurraldetan emakumeek bizi dituzten indarkeria egoerak gainditzeko lantzen dituzten egitasmoei babes berezia eman die.

Andoainera hurbildu ziren GKEetako ordezkariak ere esker ona adierazi zuten, Andoaingo Udalak murrizketak ezartzeko joera nagusitik aldentuz urtez urte diru laguntzak mantendu dituelako.

Oihana Merino

(Bakerako Lankidetzaren Batzarrea):

“Gure proiektua 200.000 mila biztanletik gora dituen Ziguinchor (Senegal) departamendura bideratzen da. Bertan bizi diren emakumeen eskubideak bultzatu nahi dira, eta horretarako emakumeak ahalbidetu nahi dira formakuntzen bidez, gizarteko hainbat arlotan (hezkuntza, osasungintza, aisialdian...) euren eskubideak defendatzeko ahalbidetuta edukitzea. Gizartean bertan txertatuta dauden emakumeen elkarteekin lankidetzan jarduten dugu”.

Kote Urbieto

(Mugen gaitetik):

“Urte mordoska daramagu El Salvadorreko herrialdean, bertako emakumeen aurkako biolentzia eragiten duten faktoreei aurre egitea izanik gure printzipioa. Emakumeen elkarteekin elkarlanean jarduten dugu, eta baratzte txikiak dituzten emakumeen artean genero berdintasuna lantzen dugu. Andoaingo Udalaren diru laguntza jaso duen proiektu honek, zehazki, bizitzarekin, ugalkortasunarekin eta sexuarekin lotutako eskubideak garatu nahi ditu; hots, proiektu honen helburu nagusia nerabeen haurdunaldiak ekiditea da. Horretarako emakume talde bat gaituko da, gero horiek eragin dezaten gizarteko hainbat eremutan, izan ikastetxeetan, izan guraso elkarteetan, izan udalerrietan...”.



Oihana Merino

“Gure egitasmoa 200.000 biztanletik gora dituen Senegalaldeko Ziguinchor departamendura bideratzen da. Bertako emakumeak ahalbidetu nahi ditugu”




Kote Urbieto

“El Salvador herrialdean bertako emakumeen aurkako biolentzia eragiten duten faktoreei aurre egitea da gure printzipio handiena. Emakume talde bat gaitu nahi dugu”



Ion Elizalde

“Txiapasko nekazari eremuetara bideratzen dituen ahaleginak gure elkarteak. Lan egiteko garaian, komunitate horietako emakumeengan dauzkagun begiak jarrita gehienbat”



Fernando Vaquerizo

“Marokoko gobernuak legeztatutako lehen elkarte saharaiarrarekin lankidetzan ari gara. Izaera politikoa dauka, uste baitugu premiazkoa dela kooperazio eredu hau ere”

Ion Elizalde

(Chiapas Enea):

“Txiapasko nekazari eremuetara bideratzen dituen ahaleginak gure elkarteak. Bi komunitateetako emakumeengan dauzkagun begiak jarrita gehienbat. Bertako elkarteekin batera emakumeentzat formakuntza ikastaroak antolatzen ditugu modu pertsonalean gaitu daitezten. Era berean, etxola turistikoak eta osasun guztiak eraiki nahi dira, formakuntza jaso duten emakumeak izan daitezten euren kudeatzaileak. Oso garrantzitsutzat jotzen dugu jaso dugun laguntza, izan ere nahiko berria baita gure elkarte eta premiazkoa du hasierako bultzada”.

Fernando Vaquerizo

(Mundubat Fundazioa):

“Gure proiektua Marokoko okupatuta dauden lur eremutan garatzen ari da. Hain zuzen, Marokoko gobernuak legeztatutako lehen elkarte saharaiarrarekin lankidetzan ari gara; “Giza eskubide larrien urraketen biktima diren Saharako elkarteak” du izena. Nahiko hasi berria da proiektu hau eta oinarriak jarri nahi ditu etorkizunean sendo segi dezan bere funtzioa betetzen. Izaera politikoa dauka proiektuak eta horixe aldarrikatu nahi dugu, uste baitugu premiazkoa dela kooperazio eredu hau ere”.

LAGUNTZA JASOKO DUTEN EGITASMOAK

- **Mundu Solidarioa Helburu (AMS-MSH):** Ahalmen urritasuna duten Diriambako (Nikaragua) gazte eta helduen gizarte eta lan formakuntza. 12.000 euro.
- **Bikarte Elkarte:** Itxaropen habia (Bielorrusia). 1.340 euro.
- **Bakerako Lankidetzaren Batzarrea:** Ziguinchor (Senegal) departamenduko emakumeen eskubideak bultzatzea. 4.000 euro.
- **Behar Bidasoa:** Kabugako (Rwanda) nekazaritzari eta abeltzaintzari lotutako jardueren indartze eta zabalitzea. 7.000 euro.
- **Chiapas Enea:** Txiapasko (Mexiko) jatorrizko emakume gaitzeari begirako garapen turistikoak. 3.000 euro.
- **DOA:** Beni departamenduko (Bolivia) osasun sistema indartzea. 7.000 euro.
- **Derandain Fundazioa:** Kibera Keniako lurralderik txiroenean hezkuntza egitasmoa laguntzea. 4.000 euro.
- **FISC:** Pastoko (Kolonbia) haur eta gazteen artean gizarte baketsu, ziur, inklusibo eta iraunkor baterako giroa sortzea. 7.000 euro.
- **Ojos del Mundo Fundazioa:** Inhamba (Mozaubike) probintziako biztanleen begi-osasuna hobetzea. 5.000 euro.
- **Gipuzkoako Oscar Romero Solidaritate Batzardea:** Tacubako (El Salvador) emakume nekazarien ekonomia eredu zabalitzea. 7.000 euro.
- **Herriak Elkarlanean:** Mantako (Benin) osasun zentroaren eraikuntza. 4.000 euro
- **IC-LI Ingenieria para la Cooperacion:** Bokoko N Daliko komunitatean (Benin) lehen hezkuntzako ikastetxe baten eraikuntza. 7.000 euro.
- **Medicus Mundi Gipuzkoa:** Tigrayko (Etiopia) lau distrituetako emakumeen eskubideak egunerokoan ezartzen laguntzea. 4.200 euro.
- **Mugen Gaitetik:** Suchitotoko (El Salvador) emakumeen indarkeriarik gabeko bizitza eta sexu ugalketa eskubideen jarduerari laguntzea. 5.560 euro.
- **Mundubat Fundazioa:** Sahara Mendebaldean giza eskubideen defentsaren aldeko mugimenduen indartzea. 4.000 euro.
- **ONG HONEK:** Totogalpako (Nikaragua) hirigunean euri-erreketatik gertu bizi diren familiei eraikuntzak eraikitzea. 4.000 euro.
- **Taupadak:** Chiman kulturako herri indigenetan (Bolivia) ur saneamendu-obra egitea. 8.000 euro.
- **Proyde-Proega Fundazioa:** Akassaton (Benin) gazteriarren sustapen integralari laguntza ematea. 12.000 euro.
- **Euskal Herriko Serso San Vitor:** Peruko hainbat eremutan eskolatutako gabeko gazteei oinarritako hezkuntza eskaintzea. 3.000 euro.
- **Txingudi Vida:** Andre Dupont konplexuan (Burkina Faso) DBH3ko hiru gela altzairuz eta informatikako aparailuz hornitzea. 4.000 euro.

TRADIZIOA

Axerien Puska Biltzea Leizotz auzoan

Egundoko giroa sortu zuten axeriek Leizotz auzoko etxe eta baserrietan joan zen larunbatean. Axeri dantzari harrera ezin hobea egin zieten Anaztegi, Agerreborda, Antzizu, Idiazabal, Mizpiradi

Amezti, Asu, Antzizarren eta Leizotz auzoko beste hainbat baserrietan; hamaiketako ederrez gozatzeko aukera izan zuten bertan axeriek.

Dantza-joko irigarriak behin eta berriro egin zituzten baserri atarrietan, eta giro alaia nagusitu zen goizean goizetik hasi eta egeardira bitarte. Nekazari kutsua duen inauteri giroko ohitura da Axerien Puska Biltzea, orain dela bost urte berreskuratu zuena Axeri Dantzaren aldeko elkarteak, Olagain txistulari elkartearen laguntzarekin. Inauterien etorrera iragartzen du Andoainean, puska biltzeak. Hain zuzen ere, kaldereroez osatutako bi konpartsen txanda da asteburu honetan, Andoaingo kaldereroen eta Ondarreta ikastetxeko kaldereroen eskutik. Kaleko inauteriak, berriaz, bi aste barru helduko dira Andoaingo kaleetara.



Axeri dantzako jokoetako bat Antzizu baserriaren atarian. Argazkiak eta bideoak aiurri.eus webgunean ikusgai daude.



Antzizu baserriko Sorozabal Ansa familiakoek harrera polita egin zieten axeriei.



Amezti baserriko Alberto San Cuzi axeriek zapi zuria jarri zioten lepoan.



Asu baserriera paseoa dantzatzuz eta umore ederrean gerturatu ziren axeriak, gainerako baserrietara bezalatsu.



Miren Koro Iztueta, Jon eta Maddi Jauregi, Pello Iztueta eta Mari Zipitria axeri batekin, Aterpe etxolan.

Gaikako bilketa orokorra %29tik %45,6ra igo da hilabeteotan

Materia organikoaren bilketaren lehen datuak



Udal ordezkariak joan zen ostegunean, materia organikoaren bilketaren lehen datuen emaitza eman zutenean.

Materia organikoaren bilketa iazko urrian jarri zen martxan, edukiontzi marroiaren ezarpenarekin. Geroztik herritarrek kubo txikiak eta poltsa birziklagarriak jaso eta materia organikoa bereizteari ekin zioten. Udalak joan zen ostegunean lehen datu bilketaren emaitzaren berri eman zuen, eta lehen datu orokorren arabera gaikako bilketa %29tik %45,6ra igo da. %60ko bilketa tasa lortzeko bidean, lehen urratsa positiboa izan dela esan daiteke.

Ana Carrerek erabiltzaileen konpromisoa balioan jarri eta esker ona adierazi nahi izan zuten, datuak aurkeztu eta gero: "Urratsa eman duten herritarrei zorionak eman eta esker ona adieraztea dagokigu. Izan ere, herritarren konpromisorik gabe ezinezkoa da datuak hobetzen joatea". Udalaren erronka %60ko bilketa tasara iristea denez, helburua bikoitza da. Batetik, herritar gehiagorengana iristea. Udala orain arte izena eman ez dutenen artean edukiontzi txiki, poltsa ekologi-

Gaikako bilketa %29tik %45,6ra igo da. %60ko bilketa tasa lortzeko bidean, lehen urratsa positiboa izan da

koak eta txartel gehiago banatzeko prest dago. Bestetik, dendari eta merkatari gehiagorengana iritsi nahi dute. Sektore horretan, izan ere, hainbat merkatalguneetan bereiztu behar den materia organiko asko sortzen baita.

Hiru Udal ordezkariak lehen datuen emaitzekin pozik agertu ziren, eta erabiltzen jarraitzeko deia egin zuten. Alkateak berak bide beretik jarraitzeko garrantziaz ohartarazi zuen: "Herritar gehiago animatuz gero, aise lortuko dugu datuak hobetzea eta ondorioz guztion artean herri jasangarriagoa izatea lortuko dugu".

Orain arte edukiontzi marroiaren erabiltzaile izan ez direnek udaletxeko atarian izena eman dezakete.



DATU OROKORRA

315 Kg. hondakin urteko

Tolosako Mankomunitateak eman dituen datuen arabera, 2016an herritar bakoitzeko batz besta 315 kg. hondakin sortu ziren eta horietatik 98 kg. gaikako bilketaren bitartez berreskuratu dira.

ORGANIKOA, ERABILTZAILEAK 2400 erabiltzaile

Edukiontzi berriaren erabiltzaileak.

GAIKAKO BILKETA GORA

%15 igo da

Materia organikoa biltzen hasi zenetik gaikako bilketa %29tik %45,6ra igo da.

ERREFUSA BEHERA

%23,25 jaitsi da

Materia organikoaren bilketak errefusara bideratutako kopuruan eragin du.

OHARRA ERABILTZAILEEI

Poltsa konpostagarriak

Udalak hiru hilabetero 2 poltsa sorta banatuko dituela iragarri du.

Lankidetzaz hitzarmena, lehentasunezkoa



Beterri-Buruntzako EH Bilduko ordezkariak.

Beterri-Buruntzako EH Bilduko ordezkarien ustez, lankidetzaz hitzarmenak onura handiak ekarriko dizkie eskualdeko ekintzaileei, enpresei eta, oro har, herritarrei. Nolakoa izan behar lukeen argi utzi dute: Jasangarria, parekidea eta parte-hartzailea. "EH Bildutik joan den legegintzaldian hasi ginen Udalen arteko lankidetzaz hori egituratzeko aukerak aztertzen eta lantzen. Guretzat lehentasunezko gaia da. Indar handia jarri dugu eskualdea osatzen dugun Udalen arteko elkarlana bultzatzen eta marko juridiko bat sortzen. Gure eskualdearen garapenak ekonomia eraldatzailearen printzipioetan oinarrituta egon behar duela ulertzen dugu. Lankidetzaz hitzarmen hau bultzatu dugu gure eskualdea bidezkoagoa, iraunkoragoa eta parekideagoa lortzeko tresna izan dadin".

deko Udal gobernuetan egun kolore politiko desberdinak daude, eta EH Bildutik ahal legin handia egin dugu denaren irizpideak eta interesak kontuan hartzen", adierazi zuen Andoni Gartzia Astigarragako ordezkariak.

Ez dute edonolako garapena sustatu nahi, "baizik eta ekonomia sozial solidario eta eraldatzailearen printzipioen arabera garapena sustatu nahi dugu. Tokiko garapen ekonomikoa eta soziala kooperatibismoan, jasangarritasunean eta parte-hartzean oinarrituta egon behar dutela ulertzen dugu. Lankidetzaz hitzarmen hau bultzatu dugu gure eskualdea bidezkoagoa, iraunkoragoa eta parekideagoa lortzeko tresna izan dadin".

Inauterietako argazki lehiaketa deitu du Udalak

Inauterietako argazki lehiaketa deitu du. Herri mailako lehiaketa denez, Andoainen bizi edo lan egiten duten 14 urtetik gorako andoaindarrek parte hartu ahal izango dute. Saria bikaina da, 250 euroko saria dirutan.


Lanak, paperean edo formatu digitalean, datorren martxoaren 6a baino lehen aurkeztu behar dira Bastero kulturagunean. Posta elektronikoko bidez parte har daiteke kultura1@andoain.eus e-postara bidalita. Partaide bakoitzak, gehienez ere, 4 argazki aurkeztu ahal izango ditu.

Bideo sorta, argazkiak... elkarrizketak.

Eduki gehiago www.aiurri.eus webgunean komunitatea atalean

aiurri.eus/Komunitatea/pianojaialdia

Herritarrak izango dira erabakiko dutenak



GuraSOS Postontzia

Herritarrak izango dira gai honetan erabakiko dutenak: horrek ez du atzera bueltarik. Eta hori datorren otsailaren 19an ikusiko dugu. Donostiako kaleak bete egingo dira adostasuna edo liskarra, batuketa edo banaketa, guztiok irabazi edo guztiok galtzearen artean zein aukeratu dugun ikusteko. Bertan ikusiko dugu lau urtean behin kutxa batean sartzen dugun boto-paper huts bat garen edota Gipuzkoako etorkizuneko parte-hartzeko eskubideak dugun herritarrak garen.

Badakigu une hauetan zaila dela hori horrela izango dela sinestea. Ulertzen dugu herritar asko nahastuta, haserretuta eta minduta egotea. Normala da, izan ere, asteartekoa herritarrenganako mespretxua eta botere erakustaldia izan da, erakundeak gotorleku eta herritarrengatik urrun bezala ulertutako pentsamendutik egindakoa.

Erronka argia da: harresi hori harriz harri deseraiki dezagun eta eraiki dezagun guztion artean etxe komun bat.

Kezka: Botere judizialaren independentziarekiko errespetu faltagatik kezkatuta Auzitegiek boterearen praktika fiskalizatu, herritarren eskubideak babestu eta jokoaren arauak betearazteko funtzioa dute. Funtzio horrek premisa bezala behar du bere independentzia errespetatzea.

Baina kezkatuta ikusten dugu nola agintari foralek beraien boterearen erakustaldia egiten duten, Auzitegien eta Legearen gainera beren burua jarritz. Epaiak ere zeintzuk izango diren aurreratzen dituzte.

Herritarrei deia: Beraiek izango dira erabakiko dutenak

Baina, ez al dute herritarrek agintzen? Ahaztu al dira horretaz? Otsailaren 19an gure ahotsa entzunarazteko aukera izango dugu.

Konfiantza: Orain inoiz baino gehiago gizartearen txanda da. Pazientzia izan behar dugu, la-saitasuna. Ez da ezer bukatu. Gizartearen indarrarekiko konfiantza izan behar dugu. Gizarteak izango du azken hitza. Bera delako epaile gorena.

Argitasuna: Inoiz baino gehiago. Ez dugu frustrazioan erori behar. Adostasuna eta herritarren parte-hartzearen alde egiten duen bide-orri bat daukagu. Bide horretatik urruntzea akats bat litzateke. Norbaitek banaketa eta liskarra betikotu nahi baditu, ez du lortuko. Ez dugu nahi bide horretan jarraitu.

Irmotasuna eta duintasuna: Horrek ez du esan nahi gure eskubideak zapaltzen utzi behar dugunik. Irmotasunez defendatuko ditugu kalean eta auzitegietan. Oso argi izanik azken helburua lortzeko direla: adostutako akordio bat hondakinen kudeaketaren gaiaren inguruan.

Babesa: Ez dugu ahaztu behar GuraSOS gure alaba eta semen osasunagatik kezkatutako guraso taldea garena. Ez gehiago, ez gutxiago. Gure lehenitasuna beti gure txikiak izango dira eta horrela izanik, beraien alde egingo dugu aurrerantzean ere etsi gabe orain arte egin dugun bezala, gure indar guztiarekin. Atsedenek gabe. Ez dagoelako gure seme-alabak baino ezer garrantzitsuagorik.

Otsailak 19, hitzordu historikoa: "Elkarrekin gehiago gara. Adostasuna, besterik ez!" / "Sin conflictu, la solucion es el acuerdo" lelopean manifestazioa Donostiako Artzain Onaren katedraletik abiatuko da eta Boulevarden amaituko da San Martin, Fueros eta Republica Argentina kaleak igaro ondoren.

Manifestazioa isila izango da eta argi geratu dadin azpimarratu nahi dugu ez dela erraus-tegiaren aurkako edota Foru Aldundiaren kontrako manifestazioa izango. Manifestazio hau GuraSOSek proposatutako bide-orriaren aldekoa izango da, hondakinen kudeaketaren gaiari irtenbide adostu bat lortzeko asmoz. Gure eskubidea delako eta Gipuzkoak akordioa behar duelako liskarra gainditzeko.

Manifestazioaren amaieran bertan gauden guztiok eskuak elkarri eman eta gora igoko ditugu, gizarte batasuna adierazteko asmoz.

Otsailaren 19an zuk erabakiko duzu, zatoz!

HITZ-GEZIDUNAK

	Doministakua	Idazteko gaitasun	Zakarrak
	Ohitura	Eskusoinuak	Arnasestu
Erregai beltz			
Inuzentea, ergela			
Bertzaranako auzoa	Narrasti mota	Hiltzeko tresnak	
Toka, diot	Zugarramurdiko auzoa	Atzizki handigarria	
		Dagoela	
		Zuhaixka mota	
* ASTEASUKO AUZOA			
Arabako udalerrria			Idi, hitz elkarzteetan
			Jardun
Indarrez jarria			Kontso-nantea
Gaur			Herri hizkeran, eta
		Gozoki handia	
		500	
Aditzera emanak			


HITZ GURUTZATUAK

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER ESKUIN: 1.- Osagile. 2.- Bigarren bokala. Hegazti mota. 3.- germanioaren ikur kimikoa. Oiloaren oihua. 4.- Barazki hostotsua. Pluralean, musika tresna. 5.- Musean, jokaldian esku hartu nahi ez dela adierazteko hitza. Aretoa. 6.- Irudi obala. Barrea adierazteko hitza. 7.- Landare mota. Kriptonaren ikur kimikoa. 8.- Landare arantzatsua. Bokala. 9.- Egokia, ona.

GOITIK BEHERA: 1.- Sakelakoari hala esaten ere zaio. 2.- Bokala. Desagerrarazi. 3.- Harrapa ezan! Arbasoak. 4.- Toka, du. Olibarko herriburua. 5.- Gabarra txikiak. Ez zuzen. 6.- Nafarroako udalerrria. Zakurra. 7.- Bizkaieraz, igoan. Nor deklinabide kasuaren atzizkia. 8.- Establezimenduak. Oxigenoaren ikur kimikoa. Ekarrarazi, etorrarazi.

BIKIAK



Bi baizik ez dira berdin-berdinak. Zein?

ERANTZUNAK

Bikiak: 1.a eta 9.a
 Erakarrak:
 Oliba: 5. Aialk. Oliba: 6. Gares. Ora: 7. Iganak. Ak: 8. Lokalak. 0. 9.
GOITIK BEHERA: 1. Segaploia. 2. Ezabat. 3. Noi Asabak. 4. Dik.
 5. Paso. Sata. 6. Obalo. Kar: 7. Tabako. Kr: 8. Olibera. 1. 9. Aukerakoa.

G	I	O	Z	A	K	L	A	I	T	Z	A	K
I	D	A	T	Z	O	A	K	L	A	I	T	Z
U	S	A	K	O	R	M	A	K	L	A	I	T
U	S	A	K	O	R	M	A	K	L	A	I	T
Z	O	A	K	L	A	I	T	Z	A	K	L	A
Z	O	A	K	L	A	I	T	Z	A	K	L	A



KIROL ALBISTEAK

Datorren martxoaren 18n izango da, egun osokoa

Luz Ardidenera irteera Zanpatuz taldearekin

Zanpatuz Mendi elkarteak egun osorako irteera antolatu du martxoaren 18rako, larunbatez. Luz Ardiden eski estazioa aukeratu da urte honetarako, Luz Saint-Sauveur herriari materiala alokatzeko aukera baitago. Alpinoa, snow-a eta erraketak, horiek egin ahal izango diren jarduerak. Irteera goizeko 06.00etan izango da Matxo tabernako geltokitik, eta itzulera iluntzeko 20:00ak aldera.



Izena emateko epea datorren martxoaren 10ean bukatuko da.

ALPINO, SNOW, ERRAKETAK... AUKERA ZABALA

Autobusaren salneurria 10 eurokoa izango da. Alpinoa edo snow-a egitea erabakitzen duenak, 35 euro gehiago ordaindu beharko ditu forfaita erosteko, 45 denera (forfait guztiak seguruarekin izango dira). Materiala alokatu nahi duenak 15 euro gehiago jarri beharko ditu, alpinoa, snow-a edo erraketak izan. Eski estazioara iritsi aurretik materiala alokatuko da herrian, eta eski estazioa igo. Erraketekin doazenak euren kabuz erabaki beharko dute ze ibilbide egin.

Nahi duenak otordua eraman dezake berarekin, baina Luz Ardiden eski estazioan

hainbat kafetegi daude. Ez da derrigorrezkoa otordua eramatea.

Eski eguna 16:00ak aldera bukatuko da. Ordu horretarako jende guztiak autobusean egon beharko du, etxera buelta egiteko. Izena emateko epea martxoaren 10ean bukatuko da, eta Xauxar, Ikasmin eta Kantoi tabernan eman ahal da izena. Izena ematerakoan, zein aukeraketa egin duen azaldu beharko du izen-emateak, eta ordainketa egin. Aurke bi urteetan eguraldia traketts samarra izan zen, eta hirugarren saiakeran zortea lagun izatea espero dute antolatzaileek.

ZANPATUZ KORRIKAKO 20. EKITALDIAN

Zanpatuz mendi elkarteko lagunak Korrikako 20. ekitaldian parte hartuko dute. Elkarrekin kilometro erdia erosi du, eta Korrika Urnietara iristen denean, bertan izango da euskara herriko txoko guztietan barrena barreiatzen. Eguna jakina da, dagoeneko: apirilak 4. Ordua ere bai, gutxi gorabeherakoa, goizeko 10.30ak aldera. Lekukoa hartuko den tokia argitzeko dago, oraindik.

Zanpatuz mendi taldeak kide diren eta ez diren guztiei ekitaldian parte hartzeko deia egin nahi die.

Izena emateko epea zabalik dago elkarteko bazkideentzat

Euskaldunaren irteera Cazorlara, Aste Santuan

Cazorlako, Segurako eta Las Villaseko mendizerratan ibilaldiak egiteko asmoarekin, Euskalduna mendi taldeak Aste Santurako irteera antolatu du Jaen aldera. Euskaldunatik adierazi dutenez, "bidaia bera 2.000. urtean egin genuen eta izandako arrakasta ikusita, aurten errepikatzea erabaki dugu".

Izen-ematea zabalik dago bazkideentzat, eta bazkide ez direnentzat datorren otsailaren 20an zabalduko dute. Bazkide izan edo ez izan, bidaiaren antolatzaileak informazioa emateko prest egongo dira Euskaldunako egoitzan, asteleheneetik ostegunera 20:00etatik 21:00era Andoaingo Kale Nagusiko 31n (943 59 22 32).

Izena emandakoan 100 euro ordaindu beharko da, eta gainerakoa martxoaren 31 baino lehen.

Gastuan bidaia, hotela pentzio erdian, mendi irteerarako gidariak, txango turistikoak eta itzulera bazkaria sartzen dira. Bidaiaren prezioa 340 eurokoa da, eta bazkide ez diren kasuan 355 eurokoa.

Reyes Carrere entrenatzailea hizlari arituko da Urigainen



Leizaran eskubaloitzailearen laguntzarekin, eta Gipuzkoako Eskubaloitza Federazioak antolatuta, datorren otsailaren 17an arratsaldeko 19:45etan hasita, federazioaren zuzendari teknikoa den Reyes Carrere hitzaldia eskainiko du

Urigainen "Defentsa irekiak-Banakako defentsa: Definizioak eta egoera praktikoak" izenburupean. Hitzaldia eskubaloitzaile eta arbitroei zuzendurik dagoen arren, eskubaloitzaile guztiei irekita dago ekitaldia.

Paleta, senior mailakoa

Gazteleku 25-12 Urnieta

Xabier P. Arenaza, Unai Arozena. Partida txarra Andoainen.

Tolosa 16-25 Urnieta

Jon Iturbe, Xabier Pavon. Partida ona etxetik kanpo.

Alde Zaharra 25-13

Iban Barrutia-Xabier Pavon. Maila ona liderren aurka.



Jon Iturbe, Xabier Pavon.

Gazte igerilariak bikain 50 metroko finaletan

B finaletan taldekide hauek aritu ziren, Legazpin: Aitor Santos eta Nerea Irazu bular estiloko proban, Hodei Barcina eta Pello Ibarra librekoan eta June Lopez eta Ane Artola Tximeleta estilokoan.

A finaletan Saioa Elola, Aintzane Sarobe eta Unai G. Somovilla aritu ziren estilo librean, bizkar estilokoan eta bular estilokoan hurrenez hurren.

Goiz pasa polita parte hartzaileek txapelketa zurraraz bizi izan zutelako.

Ganbara saski taldea

Asteburuko emaitzak:

Viento Sur 68-50 Ganbara SenM
Bergara 64-45 Ganbara JubM
Ganbara KadM 46-59 BKL

Partidak Allurralden:

Ganbara JubM-ZAST. 09:00.
Ganbara SenM-Lizeo. 19:15.
Otsailak 18, larunbata.

Euskalduna 2-0 Urnieta Erregional mailako derbian

20. JARDUNALDIA. Emaitzak:

Euskalduna 2-0 Urnieta

SAILKAPENA. 19. jardunaldia:

1. Añorga	45
4. Euskalduna	33
9. Urnieta	25

21. JARDUNALDIA. Asteburuan:

Urnieta-Dunboa

Lar, 18. 18:00.

S. Tomas-Euskalduna

Lar, 18. 19:30.

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
REPERRI-RURINTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerrri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



Aiurri eskuragarri:

Etexe etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 36 eurokoa da. Urnietan, 31 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain
Tel.: 943 300 732
Faxa: 943 300 731
@: andoain@aiurri.eus
Webgunea: www.aiurri.eus

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda.
andoain@aiurri.eus
Erredaktoreak:
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trubuelo eta Jon Ander Ubeda.
diseinua@aiurri.eus
Publizitatea:
Fernanda Irazu.
publizitatea@aiurri.eus

Zorion agurrak, merkatu txikia:

diseinua@aiurri.eus
www.aiurri.eus
Lege Gordailua: SS-1078/04.
ISSN: 1698-4870.
Tirada: 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa arduraduna:

Garbiñe Ugartemendia.
idazkaritza@aiurri.eus
Tel.: 943 300 732

Banatzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Isabel Salaberria (Urnieta).
Inprimategia:
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

Agenda

OTSAILAREN 16TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

Zinema

Andoain, Bastero

■ "Figuras ocultas"

Otsailak 18. 19:30-22:00.
Otsailak 19. 19:30.
Otsailak 20. 19:30-22:00.

■ "ORM en el reino de las nieves (Snow queen 2)"

Otsailak 18, 19. 17:00.

■ Bakea eta bizikidetzak zikloa "Heriotzaren triangelua".

19:00 Bastero.
Otsailak 16, osteguna.

Urnieta, Sarobe

■ "Mascotas"

16:00. 4 euro.
Otsailak 19, igandea.

Korrika

Andoain

■ Korrika batzordea.
19:00 AEKren egoitza.
Otsailak 20, astelehena.

Farmaziak

Andoain

■ Ansa. Gaez: Etxebeste.

Urnieta

■ Etxebeste.
Otsailak 18 eta 19.

Erakusketa

Andoain, Bastero

■ "Ikimilikiliklik".
Artzeren unibertsoa.
Otsailaren 16ra arte.

Musika

Andoain, Bastero

■ Anari eta taldea zuzenean.
21:30 Auditorioa.
Otsailak 17, ostirala.

Lehiaketa

Andoain, Bastero

■ Maskara lehiaketa. Lanak aurkezteko eguna.
Otsailak 21, asteartea.

Aurkezpena

Urnieta, Lekaio

■ Egape ikastolaren 50 urteko liburuaren aurkezpena eta argazki erakusketaren irekiera.
18:00 Lekaio.
Otsailak 16, osteguna.

Jardunaldiak

Urnieta

■ Aranzadiko Pako Etxeberria forentsearen hitzaldia.
19:00 Lekaio.
Otsailak 23, osteguna.
■ "La mirada del otro" antzez-lana.
19:00 Sarobe.
Otsailak 25, larunbata.

Ikuskizuna

Urnieta

■ "Kaput" familia ikuskizuna.
17:30 Sarobe.
Otsailak 26, igandea.

Kaldereroak

Andoain

■ Otsailak 17, ostirala:
14:30 Ondarreta.
■ Otsailak 18, larunbata:
17:00 Ontza elkartea.

Inauteriak

Andoain, Urnieta


■ Otsailak 23, osteguna:
15:15 Festa Goikoplazan.
17:30-20:00 Beldurraren etxea Gazte Lokalean.
18:00 Maskara lehiaketa, sari banaketa Urnietan.
■ Otsailak 24, ostirala:
17:30 Mozorro festa Gazte Lokalean.
18:00 Kontzertu bufoa Urnietan.
■ Otsailak 25, larunbata:
12:00 Konpartsen kalejira eta Soinuak eskolako ikasleen kalejira.
17:00 Inauteri desfilea.
23:00 Disko festa Nafarroa plazan.
■ Otsailak 26, igandea:
12:00 Inauteri desfilea.
17:30 Haur festa Nafarroa plazan.

Urnieta

■ Poxta Zahar taldeak bazkaria antolatu du frontoian, txartelak salgai dagoeneko Xauxar tabernan.
Otsailak 25, larunbata.

ZORION AGURRAK

ZORIONAK



Peio zorionak!
Zazpi urte bete dituzu. Ondo pasa eguna, familia guztia-
ren partetik.

URNIETA

ZORIONAK



Urko zorionak!
27an 4 urte bete-
ko ditu. Ondo
pasa familia eta
lagunekin. Muxu
handia.

URNIETA


ZORIONAK



Zorionak Irati!
2 urte bete
zituen otsailaren
15ean. Muxu
handia. Ane,
ama eta aita.

URNIETA

ZORIONAK



Otsailaren 12 eta
15ean **Ainhoa**
eta **Oihan** Amia-
nok 6 eta 3 urte
bete zituzten.
Urrun bizi arren
asko maite zai-
tuztegu.

ANDOAIN

Oso erraza da diseinua@aiurri.eus
Whatsappa: 619 163 537

Go!azen ikuskizuna apirilaren 2an Basteron



Datorren otsailaren 18an salgai ipiniko dira Go!azen ikuskizuna ikusteko sarre-
rak, Basteroko leihatilan edota Kutxabank bidez. Egun berean salgai ipiniko dira Pupu eta Lore ikuskizunerako eta Ruper Ordorikaren emanaldirako sarre-
rarak ere.

APIRILAK 1, LARUNBATA
17:00. 4 euro.

Pupu eta Lore, haizearen herrira
Pupu, Lore, eta aitona Manolo dira protagonistak hil

berria den Imanol Urbieta-
ren kantutegian oinarrituta-
ko saioan.

APIRILAK 2, IGANDEA.
17:00. 6 euro.

Go!azen ikuskizuna
ETB1eko telesailaren zuzene-
neko musikala.

APIRILAK 7, OSTIRALA
21:30. 12 euro.

Ruper Ordorika
Kantari ezaguna diskoa aurkezte-
ten dabil Euskal Herrian barrena.

Zerutik mundua ikusten! Parapentearen mundua

Diaporama Bidaiateka

Otsailak 22, asteazkena
19:00

Lekaion. DOAN

Iñigo Gabiria



gipuzkoan gazte direnentzat
gipuzkoan gazte.eus



943 333 973



gazteinformazioa@urnieta.eus



@gazteinformieta



GaztegunerUrnietak